20. Hirigintza-plangintzarako sarrera I

1. Ordenantzek hirigintza-zuzenbidearen hastapena ezarri zuten. Hirigintza-zuzenbidea lurzoruaren erabilerak eta intentsitateak arautzen dituen legeen multzoa da. Lursail baten jabearen eskubideak eta betebeharrak zehazten ditu. Lurzoruaren legea: Hirigintza-zuzenbidearen oinarria. Lurzoru batetan eraikitzeko eskubidea eta berauen balioa (betebeharra) arautzen du. Estatuaren potere legegileak arautzen du lurzoruaren legea. Erkidego autonomoek eskubide berdina dute, erkidegoan barne. Espainiako Estatuko lehen Lurzoruaren Legea 1956koa da; Franco hil eta gero, erkidego autonomoak sortzen dira eta 1975eko Lurzoruaren Legea; sozialistek 1990eko Lurzoruaren Legea ezartzen dute, eta popularrek 1998koa. 2007an sozialistek Lurzoruaren Lege berria indarrean jarri zuten. Hego Euskal Herrian, horretaz gain, EAEn 2006ko Lurzoruaren Legea dago, eta Nafarroan, 2002ko Lurralde Antolakuntzarako Legea.

2. Hirigintza-zuzenbidearen faseak: 1. Plangintza; 2. Hirigintza-kudeaketa; 3. Eraikuntza.

3. Plangintzaren fasean arazoak ikertzen dira, aurreikuspenak egiten dira eta konponbideak proposatzen dira, antolakuntza-plana gauzatuz. Hirigintza-kudeaketaren fasean onartutako planaren proposamenak gauzatzea litzateke helburua, legeak zehazten dituen tresnak erabiliz. Horregatik antzerakoa litzateke plangintzan aritzea hirigintza-kudeaketa ezagutu gabe edota arkitektura-proiektuak egitea eraikuntzari jaramonik egin gabe.

4. Plangintza-tresnak: Hirigintza-zuzenbideak hiru plangintza-maila nagusi zehazten ditu: Lurraldearen eskalako plangintza, udalaren eskalako plangintza eta auzoaren eskalakoa. Beste modu batean esanda, plan zuzentzaileak, koordinatzaileak edo lurralde-planak (erkidegoan eta berauen eskualdeetan eragina dute), plan egituratzaileak edo erregulatzaileak (udalan dute eragina) eta garapen-planak edo jarduera-planak (hiri-sektoreetan dute eragina).

5. Lurralde Antolakuntzako Artezpideek Euskal Autonomi Erkidegoa osotasun gisa kontutan hartzen dute; 1990-97 urteen bitartean idatzi ziren; lurraldearen azpiegitura handiak koordinatzen dituzte, eskualde ezberdinen arteko oreka bilatuz. Esate baterako, Eibar-Gasteiz autobide berria Artezpideon bitartez proposatu zen. Halaber, interes natural bereziko eremuak, etxebizitza-guneak eta industria-eremuak koordinatzen dituzte. Ildo berean, Euskal Autonomi Erkidegoa 15 eremu funtzionaletan zatitu ditu, eremu bakoitzean zehaztasun gehiagorekin garatzeko Lurralde-Plan Partzialak (oraindik ez dira guztiak idatzi eta onartu). Eta bestalde, gai zehatzen inguruan, Lurralde-Plan Sektorialak daude, sektore bakoitzeko gidalerroak arautzeko: ibaiak, kostaldea, mendiak, haizerrotak, lurzoru industriala, jarduera ekonomikoak eta abar.